


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2013ko UZTAILA

Euskal AEko industria-jarduera % 2,9 jaitsi zen 2013ko uztailean

Aurreko hilabetearekin, 2013ko ekainarekin, alderatuta, Euskal AEko industria-ekoizpena % 1,5 jaitsi zen

2013ko uztaileko Euskal Autonomia Erkidegoko industria-ekoizpena % 2,9 jaitsi zen 2012ko hilabete berarekin alderatuta, lan-egutegiaren termino homogeneotan, Eustaten datuen arabera. Aurreko hilabetearekin, 2013ko ekainarekin, alderatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-ekoizpena % 1,5 jaitsi zen, urtaroko eraginak zuzenduta.



Sektoreka, industria-sektore handien sailkapena oinarri hartuta, 2013ko uztaileko adierazlearen bilakaerak beherakadak erregistratu ditu guztientzat 2012ko uztailearekin alderatuta, *ekipo-ondasunentzat* izan ezik; izan ere, % 1,1 igo dira. *Energia* % 3,2 jaitsi da, *tarteko ondasunak* % 4,8 jaitsi dira, eta kontsumoko ondasunak, oro har, % 5,9 jaitsi dira, batetik, *kontsumo-ondasun iraunkorrak* jaitsi direlako (% 10,5), eta, bestetik, *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* jaitsi direlako (% 3,5).

2013ko uztaileko hilabete arteko aldaketa –2013ko ekainarekiko–*energiarako* baino ez da izan positiboa (% 0,5 igo da, hain zuzen). Aldiz, *tarteko ondasunak* % 1,6 jaitsi dira, *ekipo-ondasunak* % 0,6 jaitsi dira eta *kontsumo-ondasunak*, oro har, % 2,6 jaitsi dira, batik bat, *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* % 3,6 jaitsi direlako. *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* ere jaitsi dira, baina ez hainbeste (% 0,2).

Euskal industrian pisu gehien duten sektoreetako bi igo egin dira 2013ko uztaillean, aurreko urteko hilabete beraren aldean: *garraio-materiala*% 4,9 igo da, eta *egur, paper eta arte grafikoak*% 0,6ko tasa positiboa izan dute.

1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-6,5
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-3,7
09 - Kautxua eta plastikoak	-5,6
13 - Makineria eta tresneria	-0,3
14 - Garraio-materiala	4,9
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	0,0
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-4,3
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	0,6

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Horren guztiaren kontran, metalurgia eta produktu metalikoak% 6,5 jaitsi dira, kautxua eta plastikoak% 5,6 jaitsi dira eta materialak eta ekipo elektrikoak% 4,3 jaitsi dira.

Lurralde historikoaren arabera, industria-ekoizpenaren adierazlearen uztailleko urte arteko bilakaerak zeinu negatiboa du Araban (% 3,9 jaitsi da) eta Bizkaian (% 6,2 jaitsi da). Gipuzkoan, aldiz, % 0,9 igo da. Hilabete arteko bilakaera negatiboa izan da hiru lurraldeetan: 2013ko ekainarekin alderatuta, Araban, % 2,3ko beherakada izan da, % 1,9koa Gipuzkoan eta % 0,6koa Bizkaian.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Hazkunde-tasak. 2013 uztaila. Behin-behineko datuak

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Uzt2013 / Uzt2012	M(Uzt2013) / M(Uzt2012)*	Uzt2013 / Eka2013	Eka2013 / Mai2013
Indize orokorra				
Euskal AE	-2,9	-3,6	-1,5	0,4
Araba/Álava	-3,9	-4,5	-2,3	1,8
Bizkaia	-6,2	-3,6	-0,6	-2,6
Gipuzkoa	0,9	-3,1	-1,9	2,6
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-5,9	-5,2	-2,6	4,5
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-10,5	-6,9	-0,2	1,8
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-3,5	-4,4	-3,6	5,7
Ekipo-ondasunak	1,1	-4,4	-0,6	0,4
Bitarteko ondasunak	-4,8	-4,1	-1,6	1,9
Energia	-3,2	2,4	0,5	-3,2

(*) 2013ko urtarritetik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2012ko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua